

OSTIKOZKO UKABILKADAK

Nuen aitona edukitzea, niretzat ez zen ohore bat. Zehazki, *dolore* bat zen sarritan. Gelakideen aitona guztiak futbolzaleak ziren eta nirea berriz, boxeozalea. Artean txikia nintzela, kolperik ikusezina berak eman zidan *futbola, oilo-lumak jantzi eta uneoro negar egiten duten gizon ustekoen kirola da* azaldu zidanean, mespretxuz.

Balio ezberdinak partekatzen genituen, belaunaldi ezberdinetakoak ginelako. Aitona, nire arbasorik gertukoenetzat nuen, beste garai bateko ar-baso batean hezia izan zelako, inguruetako ahabia janez. Mendian, bertako zuhaitzak mozten gau eta egun lanean jardundakoa zen. Agian, horregatik sustraitu zen hainbat aintzinako balioetan. Zeinek ozenago hitz egin, zeinek balentria handiagoa egin... haiek izan ziren zuhaitzak giza balioen basoa ikusten utzi ez zieten frankismo garaiko mundu baten koordenadak. Eta munduak leku berean jarraitzen bazuen ere, egungo giza koordenadak antipodetan aurkitzen zirenaren uste irmoa nuen.

Nire buruz beherako mundu honetan ordea, futbola artearen sinonimotzat neukan. Batez ere, kirol hark mundua buruz behera eta hankaz gora jartzeko zuen gaitasunagatik. Asteburuak, borobilak baino *esferikoak* suertatzen ziren *Gloriosoaren* zaleontzat mende hasiera hartan. Inoren mende ez erortzetik, 2001 urte hartan, Arabako futbolak beste espazio baterako odisea hasi zuenean. Saskibaloia espazioa konkistatzen hasi ziren izarrak jaiotzen ikusi genituen berdegunean, eskailera maila bat igotzen.

Bitartean, gure bi kirolen arteko dema baserriaren sukaldeko telebistaren aurrean ematen zen: *Boxeoa herriarena da, ez trajedun jauntxo horiena... futbolak talde lana eskatzen du*

eta beraz, iraultzaileagoa da! Bakoitzak argudio ezberdinak ematen zituen sukalde txokoko ahozko *ring* hartan, Alavesek Europako lehiaketan aurrera egiten zuen bitartean.

Maiatza hark ilusioa loratu zuen Euskal Herrian eta finalaren egunean, bi arerioen arteko partida baino, konbatea hasi zen. Aurkaria Liverpool ingelesa zen, oso klasikoa eta tradizionala, eskola zaharrekoa baina kontraeraso azkarrekoa, jotzaile eta hartzaile bikaina; beti gehiagoren gosez zelairatzen zena.

la hasieratik KO utzi zuen *Gloriosoa* baina borrokaldian zutik irautea lortu zuen. Lehenengo kolpe erauntsiaren ondoren, bere lekua bilatzen jakin eta kolpe-trukean sartzea lortu zuen azeri zaharrarekin.

Partida barruko asalto txikiak, bata bestearen atzetik begien aurretik pasatzen ikusten genituen aitona eta biok. Behetik gora egin zuen *Gloriosoak* eta partida berdinduta iritsi zen amaierara. Luzapenean, zutik ikusi nuen aitona, tentsioa ezin baretuta. *Atzelariak, irten txoko horretatik!, hanka-joko horrek azkarragoa behar du, soken aurka daukazue arerioa...*ezin nuen sinetsi modu horretara hitz egin zitekeenik futbol partida bati buruz.

Telebistako topikozko esaldiak baino, ederragoak eta kitzikagarriagoak zitzaizkidan aitonaren esaldi frexko eta bat-bateko haiek, hitz egin baino, esan egiten zuelako.

Urrezko golaren bidez, KO-a etorri zen azkenik, lur jota baina lurrik jo gabe utzi zutelarik *Gloriosoa*. Tente erori zelako Alaves.

Hurrengo egunean, *Ohore guztiarekin* lerroburua zeraman egunkaria irakurtzeari ekin nion, aitona ondoan nuela. Nik ere, handik aurrera ohore guztiarekin defendatuko nuela aitona ikaskide guztien aurrean erabaki nuen.

Dolorea berriz, egun, final hura galduta kolpez-kolpe nigan zizelkatua gelditu den zerbait da. Eskerrak jada mundu honetatik joan zaidan aitonaren oroitzapen eder hark sendatu eta osatzen nauen, irribarre baten bidez.

TYSON